

## Autopistaren fruituak

*El Mundo del País Vasco*, 1991-05-24.

Denbora irabazteko bide bezala agertu zitzaigun hasieran: "Donostiatik Bilbora ordubetea". Hau zen konsigna. Eta, egiatan, harrigarria zen hiru orduko bidea bakar batean geratzea.

Urak hartu balu bezala.

Nik esango dizut, irakurle orduan niretzat autopista zer zen: 1) denbora-irabazgailu hau, 2) istripuengandik zaintzeko aingeru, goardakoa, 3) kanal hortatik sartu eta lotan ere joateko lasaitua. Nere emaztea kexatzen zen, luxu garestia zela Hondarribiatik Donostiara autopista horren gainean joateagatik bakarrik 45 pezeta ordaintzea! Badakizu emazteek honetarako bista luzea dutela.

Baina banituen nire argudioak, eta aipatutakoez gain; mundu honetan denak duela prezioa, eta kasu honetan segurantza batekin, prezio honek bazuela garantia finko bat, dolarrarekin ibiliko zela fijo, eta ez pezeta ahularekin. Hori orduan zen, esaten dizut gaur, adiskide, Franko bizi zela, eta isileko batzarretara gauez Bilbora, edo handik honera, joan etorria egiteko abantaila handia zenean, zeren eta geroztik dolarrak gora eta behera egin arren, autopistako ordainketa beti gora!, eta gaur bertan Donostiarako bidaia 175 pezeta kostatzen zaigu.

Eta hau bakarra balitz!

Orain, 60-70 kilometroko abiadurarekin markatuak dauden Europako kamioi handi horiek pasatzen zaituzte, zu kotxez 100an zoazela, geldirik bazeunde bezala; beren artean ere lehiaketak egiten dituzte eta! Eta zeu, eta ni!, kezka bizian, istripua noiz gertatuko, eta trafiko hertzainik ikusi gabe, konpetentziak sarreran eta irteeran, alkoholometroekin patxaran ni, eta zu!, bizirik noiz helduko.

Ez dakit hau hala den, baina hala dirudi.